

Nolakoa da nire familia?

13. saioa

Saio honetan, gure familia bizitzaren, gure familiaren oinarri bihurtu nahi ditugun balio eta aukeren inguruan hausnartuko dugu. Jainkoaren seme eta alaba guztiez osaturiko familia unibertsala da Jesusen proposamena eta horrek argi egin diezagula eskatuko dugu.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Gure familia bizitza nolakoa den aitortu
- Ebanjelioaren proposamena onartuta, gure familiaren euskarri bihurtu nahi ditugun balioen inguruan hausnartu
- Jesusek zein familia-mota proposatzen duen ezagutu eta gure familia bizitza horrekin alderatu
- Familia maitasuna, maitatzen eta zaintzen gaituen Jainkoaren maitasunaren zeinua dela aitortu

Haurrak:

- Askotariko familiak daudela ikusi
- Familiak maite eta zaindu egiten gaituela aitortu
- Guztiok, gizadi osoak, Jainkoaren seme eta alaben familia handia osatzen dugula antzeman

GARAPENA

Haur nahiz heldu elkarrekin gaudela ekingo diogu saioari, partaideen eta gaiaren aurkezpena eginez. Ondoren, helduak eta haurrak banandu egingo dira

Helduak:

Gaia zehazten lagunduko digun dinamikarekin hasiko gara. Denon artean, familia zehazten saiatuko gara, hau da, hainbat pertsonen familia osatzen dutela esateko ezaugarri nagusiak zeintzuk diren esango dugu. Beharbada, uste baino zailago gerta daiteke. Idatz dezala bakoitzak bere familia-definizioa post-it batean. Batera jarriko ditugu eta agertuko dena komentatu egingo dugu.

Ondoren, eragileak Frantzisko Aita Santuaren definizioa irakurriko gu. Bat dator taldeak esandakoarekin? Zein berritasun dakar?

“Jainkoak desberdintasunekin bizikide izan daitezten eta tolerantzia, borondate ona, karitatea, barkamena, errespetua, doakotasuna, pazientzia, zuzenbidea, betebeharra, mugak gara ditzaten, azken batean, maitatzen ikas dezaten, besteen alde beraiei egitea gustatuko litzaiekeena egin dezaten, biltzen dituen pertsona akastunen taldea da. Oraindik ez duten bikaintasunik eskatu gabe. Ez gara merezi dugun lekuan jaiotzen, eboluzionatzea ezinbestekoa den lekuan baizik”.

Papa Francisco

Jarraian, “Etxea/Familia” Mari Patxi Ayerraren idazkia banatuko diegu eta irakurri ondoren galdera hauei erantzunez komentatuko dugu:

- Zer diotsu idazkiak? Azpimarratu deigarrien gertatu, gehien gustatu zaizkizun bizpahiru ideia...
- Bat dator familiaz duzun ideiaz, eratu nahiko zenukeen familia-motaz? Zertan bai eta zertan ez?
- Zeintzuk lirateke, zuen familia eratzeko balio edo oinarri nagusiak? Aukeratu ezinbestekotzat jotzen dituzun bospasei.
- Zein zailtasun duzue zuen familia “ideala” gauzatzeko?
- Jainkoa azaltzen da zuon etxean, zuon familian? Zertan nabaritzen da, zertan zehazten?

Zein da Ebanjelioaren proposamena? Bi txatal irakurriko ditugu:

“Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizueten alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekoka ere. Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez bihurrarazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei. Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta ongi egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue ongi, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, beste hainbeste hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita bera esker txarreko et gaiztoentzat. Izan zaitzte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala” (Lukas 6, 27-36).

“Joan zitzaizkion Jesusi bere ama eta anai-arrebak, baina jendearen jendez ezin iritsi ziren berarenganaino. Eta jakinarazi zioten: Ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zu ikusi nahian. Jesusek, berriz, esan zien: Hauek ditut nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak” (Lukas 8, 19-21).

- Zer gehitzen diote idazki hauek familiaz dugun esperientzia eta “idealari”?
- Zein galera eragiten didate, zertara bultzatzen naute?

- Zerbait aldatu, sustatu, ahalbideratu... beharko nuke familia bizitzan, Ebanjelioan aurkezten den estiloaren arabera bizitzeko?

Haurrak:

Haurrekin, "familien" joko klasikoa egingo dugu. Beraientzat ezagunak diren pertsonaien / familien (Peppa Pig, Dora Exploradora, Bob Esponja... Saioarako lagungarrietan haurren adinaren arabera marrazkiak jasotzen dira) marrazkiak banatuko dizkiegu. Eragileak, Jesusen familia osatzen duten pertsonaiak (Maria, Jose, arrantzalea, herrera, itsua, artzaina, aingerua) ere aurkeztuko ditu eta hurrekin solasean jardungo du horien inguruan.

Lehenik eta behin, marrazkiak margotu egingo dituzte, jolasteko "katetoak" osatuz. Txanda batzuk jokatuko dituzte.

Bakoitzak bere familiaren "katetoak" egiteko esango die gero eragileak haurrei: nortzuk osatzen dute? "Kateto" horiek bildu eta denok batera Jainkoaren seme eta alaben familia handia osatuko dugula azalduko die eragileak.

Saioa amaitu aurretik, Aitagurea errezatzean egiteko zeinu batzuk irakatsiko dizkiegu haurrei.

Azken unea denok batera:

Amaieran, denok elkartuko gara eta hurrek ikasi dituzten zeinuekin errezatuko dugu Aitagurea.

Saioaren amaieran, Familia Eukaristia nabarmenduko dugu eta parte hartzera deitu. Jesusen adiskideen familiako kide gara eta familia hori Eukaristian elkartzen da. Egokia litzateke, saio honetan, parrokan (PB) ospatuko den hurrengo Eukaristian parte hartzeko konpromisoa hartzea.